



2026

Irailaren 16tik urriaren 4ra

Iraila, zientziaren hilabetea Bilbon

Antolatzaileak:



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DIPUTAZIOA UNIBERTSITATEA
DIPUTAZIOA SAIA
DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN



Museo de Ciencias
Universidad de Navarra



Aurten ere, Bilbok udazkenari ongietorria emango dio **Bilbo Zientzia Plaza (BZP)** dibulgazio zientifikoko jaialdiarekin. Irailaren 16tik urriaren 4ra, BZP festibalak hiria hitzaldiz, erakusketez, eta zientzia-ikuskizunez beteko du.

EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatuta, BZP festibalak egitarau zabala aurkezten du bere bederatzigarren edizioan, proposamen erratuak, jarduera eta formatu berrituekin uztartuz. Gainera, agertoki berriak ere izango ditu: Bidebarrietako Liburutegia, Bizkaia Aretoa-EHU, Euskalduna Bilbao jauregia, Arte Ederren Museoko aurrealdea eta EDE Fundazioaren Plaza gunea. Programatutako jarduera guztiak doakoak izango dira, tokiak bete arte.

Naukas Bilbao berritu egingo da

Iaz iragarri zen bezala, berritasunik handiena **Naukas Bilbaoren beraren berrikuntza izango da**. Estatuko zientzia-dibulgazioko ikuskizun nagusiak formatua berrituko du, edukietan eta hitzaldien iraupenean hainbat aldaketa eginez.

Naukas Bilbaoren programa berrituaren barruan, **irailaren 18tik 20ra** Euskalduna Bilbao jauregiak publiko mota desberdinei zuzendutako hiru jarduera hartuko ditu: **Naukas Gazte** (ostiralean, hilak 18, goizez, bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleentzat pentsatutako hitzaldiekin); **Naukas Bilbao Hastapenak** (irailaren 19an, larunbatez, goizeko eta arratsaldeko saioetan, publiko orokorrarentzako hitzaldiekin) eta **Naukas Kids** (irailaren 20an, igandez, haurrei zuzendutako jarduerekin). Gainera, **Naukas Kidsen** programazioa hiriko beste gunea batzuetara ere zabalduko da, Bizkaia Aretoa-EHUn eta eraikinaren inguruan antolatutako ikuskizunekin.

Edizio honetako beste berritasunetako bat da haurrei zuzendutako jardueren programa zabaldu egingo dela. Ildo horretan, Naukas Kidsen programazioari **BZP Tailerrak** ekimena gehituko zaio aurten. Horren barruan ikuskizunak, tailerrak, antzerki-emanaldiak eta lehiaketak antolatuko dira irailaren 24an (osteguna), 26an (larunbata) eta urriaren 4an (igandea), Bizkaia Aretoa-EHUn eta EDE Fundazioaren Guruzu Plaza gunean. Programazioak jarduerak biltzen ditu, haurrentzako eta familientzako proposamenekin eta **inklusioa eta irisgarritasuna** kontuan hartuta diseinatutako esperientziekin.

Intsektuak, edizio honetako protagonista txikiak

Jaialdia **irailaren 16an, asteazkena, hasiko da** Bidebarrietako Liburutegian, Avis Productions-ek ekoitzitako eta Lexeia Larrañagak zuzendutako *Natura Bizia* dokumentalaren emanaldiarekin. Proiektzioaren ondoren, dokumentalaren lantaldeko kideekin solasaldia egingo da. Jarduera hau *Bidebarrieta Zientifikoa* dibulgaziozko hitzaldi-zikloaren barruan antolatu da. Zikloaren bigarren saioa, berriz, irailaren 30ean izango da, eta entomologian zentratuko da; hau da, intsektuen azterketan. Hitzaldia Beatriz Díaz biologoak emango du, Aranzadi Zientzia Elkarteko Entomologia Saileko ikertzaileak.

Gainera, intsektuek protagonismo berezia izango dute aurtengo edizioan. Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoarekin elkarlanean antolatutako *Intsektuak. Kontatzen duten guztia* **erakusketa** irailaren 19tik urriaren 4ra bitartean egongo da ikusgai. Bizkaia Aretoa-EHUn egongo den erakusketak intsektuen aparteko aniztasuna ezagutzeko ibilbidea proposatzen du. Animalia-talde horrek ezagutzen diren espezie guztien % 60-70 hartzen du.

Era berean, erakusketa **ikuspegi inklusibo eta irisgarri** batetik diseinatu da, eta hainbat baliabide eskaintzen ditu intsektuen mundu liluragarria ahalik eta pertsona gehienengana hurbiltzeko. Erakusketa urriaren 4an itxiko da, Sergi Romeu entomologoak emango duen **tailer batekin**. Azken jarduera horretan, parte-hartzaileek animaliak gertutik ezagutu eta ukitu ahal izango dituzte.

Bilbo Zientzia Plaza (BZP) EHUKo Kultura Zientifikoko Katedrak antolatutako zientzia-dibulgazioko ekimena da, Euskampus Fundazioaren laguntzarekin eta Bilboko Udala, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila, Donostia International Physics Center (DIPC), EITB eta Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoa erakundeen babesarekin.

Informazio gehiago

María Larumbe
komunikazioa.kzk@euskampus.eu
688 673 889
bzp.eus

BZP 2026ko egitaraua

Bidebarrieta Zientifikoa | Dokuforuma • Irailak 16

Naukas Bilbao • Irailak 18-20

- **Naukas Gazte** • Irailak 18
- **Naukas Bilbao Hastapenak** • Irailak 19
- **Naukas Kids** • Irailak 20

Intsektuen erakusketa • Irailaren 19tik urriaren 4ra

BZP Tailerrak • Irailak 24 eta 26 / Urriak 4

Bidebarrieta Zientifikoa | Hitzaldi-solasaldia • Irailak 30



Jaialdia irailaren 16an bueltan dator. © Iñigo Sierra | EHUKo Kultura Zientifikoko Katedra.

Bidebarrieta Zientifikoa

Dokuforuma "Natura Bizia"

Irailaren 16an, asteazkenean · 18:30 · Bidebarrietako Liburutegia
Hizkuntza: gaztelania.



Bilbo Zientzia Plaza 2026 jaialdiari hasiera emango zaio **irailaren 16an, asteazkenean**, Natura Bizia (2021) dokumentalaren emanaldiarekin. Lexeia Larrañagak idatzi eta zuzenduta, eta Avis Productions-ek ekoiztuta, saioa **18:30ean** hasiko da Bilboko Bidebarrieta Liburutegian. Sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte.

80 minutuko iraupena duen dokumentalak Euskadi eta Nafarroan barrena egiten du bidaia. Hego Euskal Herriko natura ondare eta biodibertsitate aberatsagatik nabarmentzen dira. Naturari buruzko dokumental ugaritan narratzaile izan den José María del Ríoaren ahotsaren bidez, filmak hobekien kontserbatutako natura-gune batzuk eta ekosistema horietan bizi diren espezieen aniztasun aparta ezagutzeko aukera eskaintzen du. Dokumentalak Ingurumen Komunikazioaren Saria jaso zuen 2025eko Euskal Kazetaritza Sarietan.

Itsaslabar bertikalak, itsaso amaigabea, magiaz betetako basoak eta kareharrizko formazio handiak dira natura bere egoerarik basatienean erakusten duen lan honen agertoki batzuk. *National Geographic*-ek mundu mailarako emisio eskubideak eskuratu zituen 2022an, eta, harrezkero, kontinente guztietan ikusi ahal izan da *Nat Geo Wild* kanalaren bidez.

Emanaldiaren ondoren, ordu erdi inguruko solasaldia izango da dokumentalaren sortzaileekin: **Lexeia Larrañaga**, zuzendari eta gidolaria, eta **Alex Gutiérrez**, produkzio zuzendari eta kameralaria. Ekimena **Eva Caballero** kazetariak gidatuko du, Radio Euskadiko *La Mecánica del Caracol* saioko zuzendariak.

Dokuforum hau EHUKo Kultura Zientifikoko Katedrak eta Bilboko Udaleko Kultura sailaren mende dagoen Bidebarrietako Liburutegiak antolatzen duten Bidebarrieta Zientifikoa hitzaldi-zikloaren parte da. *Streaming* bidez ere jarraitu ahal izango da, Bidebarrieta Kulturgunea [YouTube](#) kanalaren bidez. Dokumentalaren emanaldia eta ondorengo solasaldia gaztelaniaz izango dira.



Dokuforuma BZP 2026ren lehen hitzordua izango da. © Bilbao Kultura.

Naukas Gazte

Irailaren 18an, ostiralean · 10:15-13:00 · Euskalduna Bilbao

Hizkuntzak: euskara eta gaztelania.



Irailaren 18an, ostiral goizean, estatu mailan zientzia-dibulgazioko erreferentziazko ikuskizuna den Naukas Bilbao Euskalduna Bilbaoko Auditoriumera itzuliko da Naukas Gazte 2026 saioarekin. Ekimena Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduta dago. Hitzaldiak ikasleei zientzia hurbiltzeko pentsatuta dauden arren, publiko orokorrari ere irekita egongo dira.

Bertarutzen direnek 15 minutuko zortzi hitzaldi zientifiko labur eta entretenigarriak aditzeko aukera izango dute: lau euskaraz eta lau gaztelaniaz. Hizlariak, besteak beste, unibertsoaren amaiera, kirolek haratagoko bizitza edo etorkizunean 3D inprimaketak eskainiko dituen aukerak jorratuko dituzte. **Josu Lopez-Gazpio** kimikaria eta UEUko Kimika sailburua, **José Luis Crespo** (Quantum Fracture) fisikaria eta dibulgatzaile zientifikoa, **Laura Morán** psikologoa eta dibulgatzaile zientifikoa, eta **Ainara San Juan** erizaina eta EHUKo ikertzailea igoko dira oholtzara, besteak beste.

Ekitaldia Naukas dibulgazio plataformaren sortzaileetako bat den **Javier Peláez** eta **Idoia Torregarai** kazetari eta umoregileak gidatuko dute. Euskarazko hitzaldiek aldi bereko itzulpena izango dute gaztelaniara, nahi dutenentzat.

Ikuskizunerako sarrera librea izango da, aretoa bete arte. Bertaratu ezin dutenek jardunaldia streaming bidez jarraitu ahal izango dute ETB On plataformaren eta Katedratik-en bidez, EHUKo Kultura Zientifikoko Katedraren TikTok kanala.

Naukas Gazte 2026ko egitaraua

IRAILAK 18, OSTIRALA | GOIZA

10:15 – 10:30 – **Aurkezpena** (Javier Peláez eta Idoia Torregarai)

10:30 – 10:45 – **Pedro León** (idazlea eta espazioko dibulgatzailea – Agrupación Astronómica de Córdoba): «Los primeros 25.902.068.372,2 kilómetros de la sonda Voyager 1» (Voyager 1 zundaren lehen 25.902.068.372,2 kilometroak) – gaztelaniaz

10:45 – 11:00 – **Josu Lopez-Gazpio** (kimikaria eta dibulgatzaile zientifikoa – UEU): “Artsenikoa, pozoikusezina” – euskaraz

11:00 – 11:15 – **José Luis Crespo, Quantum Fracture** (fisikaria eta dibulgatzaile zientifikoa): “El silencioso final del universo” (Unibertsoaren amaiera isila) – gaztelaniaz

11:15 – 11:30 – **Ainara San Juan** (erizaina eta ikertzailea – EHU): “Bizitza gimnasiotik haratago” (La vida más allá del gimnasio) – euskaraz

11:30 – 12:00 – 30 minutuko atsedena.

12:00 – 12:15 – **Jon Luzuriaga** (farmazialaria, irakaslea eta ikertzailea – EHU):

“Etorkizuneko inprenta: 3D burmuinak sortzen” – euskaraz

12:15 – 12:30 – **Laura Morán** (psikologoa eta dibulgatzaile zientifikoa): “No te creas todo lo que piensas” (Ez sinetsi pentsatzen duzun guztia) – gaztelaniaz

12:30 – 12:45 – **Elvira Gutiérrez** (fisikaria eta ikertzailea – EHU): “Eklipteen mai(z)tasuna” – euskaraz

12:45 – 13:00 – **Gemma del Caño** (farmazialaria eta dibulgatzaile zientifikoa): «Que no te gusten las verduras ha salvado a la especie humana» (Barazkiak ez gustatzeak gizakia salbatu du) – gaztelaniaz



Laura Morán psikologoak Naukas Gazte 2026an parte hartuko du. © Iñigo Sierra | EHUKo Kultura Zientifikoko Katedra.

Naukas Bilbao Hastapenak

Irailaren 19an, larunbatean • 10:15-20:00 • Euskalduna Bilbao

Hizkuntzak: euskara eta gaztelania.



Naukas Bilbao 2026ko bigarren jardunaldia, **Naukas Bilbao Hastapenak, irailaren 19an, larunbatean**, egingo da Euskalduna Bilbao jauregian, goizez eta arratsaldean. Aurreko edizioetan hitzaldi bakoitzak gai independente bat jorratzen bazuen ere, aurtengo hitzaldi guztiek ilde nagusi bera izango dute: historiako hastapen handiak. Jardunaldia ikus-entzuleei zientziak aztertzen dituen hasiera nagusietako batzuen ikuspegi orokorra azaltzeko diseinatu da.

Hamabost minutuko istorietan zehar, zientziak aztertutako hastapen handietako batzuk jorratuko dira, unibertsoarena, bizitzarena, hizkuntzarena, musikarena edo teknologiararena. Gainera, hitzaldi batzuk euskaraz emango dira. Hitzaldi horiek aldibereko itzulpena izango dute gaztelaniara.

Santa Martínezek, Europako Espazio Agentziako (ESA) sistemen ingeniaria; **Lorena Pérezek**, hizkuntzalaria eta Errioxako Unibertsitateko ikertzailea; **Kepa Ruiz-Mirazok**, Biofisika Institutuko (CSIC-EHU) fisikaria eta zientziaren filosofoa, eta **Joanes Lizarragak**, kosmologoa eta EHUKo ikertzaileak, parte hartuko dute ekitaldian, besteak beste.

Ikuskizunerako sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte. Bertaratu ezin dutenek streaming bidez jarraitu ahal izango dute ETB On plataformaren bidez eta Katedratik-en, EHUKo Kultura Zientifikoko Katedraren TikTok profilean.

Naukas Bilbao Hastapenak egitaraua

GOIZEKO SAIOA | 10:15 – 13:00

10:15 – 10:30 – **Aurkezpena** (euskara eta gaztelania)

10:30 – 10:45 – **Miguel Santander** (astrofisikaria, Espainiako Behatoki Astronomiko Nazionala: “El gran inicio” (Hastapen handia) – gaztelaniaz

10:45 – 11:00 – **Joanes Lizarraga** (kosmologoa, EHU): “Lehen argia” – euskaraz

11:00 – 11:15 – **Naiara Barrado** (astrofisikaria, EHU): “El sistema solar” (Eguzki-sistema) – gaztelaniaz

11:15 – 11:30 – **Pedro León** (idazlea eta dibulгатzaile zientifikoa, Córdoba-ko Astronomia Elkarteak): “Lunas” (Ilargiak) – gaztelaniaz

11:30 – 12:00 – 30 minutuko atsedena.

12:00 – 12:15 – **Eva Villaver** (astrofisikaria, IAC): “Exoplanetas” (Exoplanetak) – gaztelaniaz

12:15 – 12:30 – **Santa Martínez** (sistemen ingeniaria, ESA): “Exploración espacial” (Espazio-esplorazioa) – gaztelaniaz

12:30 – 12:45 – **Nahúm Méndez** (geologoa eta dibulгатzaile zientifikoa): “La Tierra” (Lurra) – gaztelaniaz

12:45 – 13:00 – **Kepa Ruiz** (fisikaria eta zientziaren filosofoa, Instituto Biofisika CSIC-EHU): “Bizitza” – euskaraz

ARRATSALDEKO SAIOA | 17:30 – 20:00

17:30 – 17:45 – **Juan Carlos Gil** (kimikari-fisikoa, GMV): “Vida multicelular” (Bizitza zelulaniztasuna) – gaztelaniaz

17:45 – 18:00 – **Lorena Pérez** (hizkuntzalaria, Errioxako Unibertsitatea): “Origen del lenguaje” (Hizkuntzaren jatorria) – gaztelaniaz

18:00 – 18:15 – **Gisela Baños** (fisikaria eta dibulгатzaile zientifikoa): “Ciencia ficción” (Zientzia-fikzioa) – gaztelaniaz

18:15 – 18:30 – **Esther Acha** (ingenieri kimikoa, EHU) eta **Ametz Moreno** (ingenieri kimikoa, AVEQ Kimika): “Tecnología” – euskaraz


18:30 – 19:00 – 30 minutuko atsedena.

19:00 – 19:30 – **Almudena M. Castro** (fisikaria eta pianista) eta **Rocío Carballo** (psikologoa): “Origen de la música” (Musikaren jatorria) – gaztelaniaz – 30 minutu

19:30 – 20:00 – **Susana Escudero** (kazetaria, Canal Sur) eta **Guillermo Peris** (kimikaria, Jaume I Unibertsitatea): “Los límites de la ciencia” (Zientziaren mugak) – gaztelaniaz – 30 minutu

Naukas Kids

Irailaren 20an, igandean • Bizkaia Aretoa - EHU eta Euskalduna Bilbao
Hizkuntza: ikuskizun bakoitzean adierazi da.



Naukas Bilbao 2026 jaialdia irailaren 20an, igandean, amaituko da **Naukas Kids** hurrei zuzendutako jardueren programaren edizio berri batekin. Aurtengo edizioan, programak publikoari irekitako hiru ikuskizun eskainiko ditu, hiriko hiru gune desberdinetan banatuta: Euskalduna Bilbao jauregian, Bizkaia Aretoa-EHU eta eraikinaren inguruan. Jarduerak 10:00etatik 14:00etara izango dira. Ikuskizun guztietarako sarrera doakoa izango da, aforoa bete arte.

Jardunaldiari hasiera emango dio **“Circoncencia: pHízate”** ikuskizunak, Bizkaia Aretoa-EHUko Mitxelena auditoriumean. Bertaratukoek kimikaren mundu zirrargarrian murgiltzeko aukera izango dute Aurora Ribosoma eta Armando Neutrino zirkozientzialarien eskutik. Malabareak, akrobaziak eta umore uztartuta, zientzia modu dibertigarrian azalduko dute.

Ondoren, **“HOMO Curiositatis”** kale antzerkiak ikusleak Bizkaia Aretoa-EHUren ingurutik Euskalduna Bilbao jauregiraino egingo den ibilbide batean parte hartzera gonbidatuko ditu, hiru metroko altuera duen neandertal aurreko txotxongiloa eta etologo bitxi batekin batera. Ibilbide berezi horretan, gaur egungo gizakien eta gure iraganeko neandertal aurrekoren arteko ulermen-zubiak eraikitzen saiatuko dira.

Jardunaldiari amaiera emango dio Euskalduna Bilbaon zuzenean eskainiko den **EITBko Makusi plataformako “Zientzia Piztia”** saioak. Esperimentu zientifikoetan oinarritutako ikuskizun honen helburua da zientzia etxeko txikienei modu atseginean gerturatzea. Arnaitz Fernández fisikaria eta meteorologoak eta Virginia Imaz pailazoa eta aktoreak aurkeztuko dute.

Naukas Kids 2026ko egitaraua

Ikuskizuna | Circonciencia: pHízate

Laborategi batean, lonbarda-zukuan aurkitutako konposatu misteriotsu baten konposizioa, propietateak eta efektuak ikertzen ari dira bi zientzialari. Teorizatzeaz nekatuta, praktikara pasatzea erabakitzen dute, eta bere pertsonarengan dituen efektuak probatzea: konposatuaren lagin txiki bat edan ondoren, Aurora Ribosoma eta Armando Neutrino bihurtzen dira, beren ezagutza eta trebetasun guztiez baliatuko diren zirko-zientzialariak, ikusleei dibertitzeko eta azidoen eta baseen, neutralizazio-erreakzioen eta, azken finean, pH-aren mundu liluragarria erakusteko. Hori guztia malabarismo, akrobazia, oreka eta, nola ez, umore zientifiko dosi handiekin.

- Lekua: Bizkaia Aretoa – EHU. Mixelena auditorioa.
- Ordutegia: 10:00 – 11:00.
- Hizkuntza: gaztelania.
- Adina: 3 urtetik aurrera.
- Sarrera: librea, aforoa bete arte. Jende asko egotekotan, lehentasuna emango zaie umeei sartzeko eta heldu bakarra sartuko da ume bakoitzeko edo ume talde bakoitzeko. Aforoa: 420 lagun.

Kale antzerkia | HOMO Curiositatis

Neanderthal aurreko gizakia egungo Bilbo hirian esnatzen da. 400.000 urte baino gehiago igaro ondoren, bere begiak paisaia begiratzen hasten dira, eta bere oinek lurraldea berriro zapaltzen dute.

Musika soinu arkaiko eta garaikideen bidez berarekin komunikatzen den etologo xeble batek eskutik helduko dio bere esplorazioan, bere begiradan arakatuko du eta egungo gizakien eta bere arbasoaren arteko ulermen zubiak edo ispiluak jarriko ditu.

- Lekua: Arte Ederretako Museoaren aurrealdea. Hasiera: Bizkaia Aretoa-EHU.
- Ordutegia: 11:30 – 12:30.
- Hizkuntza: gaztelania.
- Adina: 4 urtetik aurrera.
- Sarrera: librea. Euria egitekotan, aforoa mugatu ahal izango da.

Ikuskizuna | Zientzia Piztia (Makusi)

Arnaitz Fernandez fisikaria eta meteorologoaren eta Virginia Imaz aktorea eta pailazoaren eskutik, ume eta gaztetxoak zientziara gerturatuko ditu “Zientzia Piztia” saioak.

Esperimentuen bitartez, abentura zientifiko txiki batean murgilduko gara: objektu txikiak dantzan jarri, marrazkiak bizidun bihurtu... Murgildu gaitezen elkarrekin zientziaren munduan!

- Lekua: Euskalduna Bilbao. 0B aretoa.
- Ordutegia: 13:00 – 14:00.
- Hizkuntza: euskara.
- Adina: 5 urtetik aurrera.
- Sarrera: librea, aforoa bete arte.
- Oharra: 5-7 urte bitarteko haurrek, heldu laguntzaile batekin batera, esperimentuak zuzenean egin ahal izango dituzte lehen ilaretan. Plaza mugatuak. Gainerako parte-hartzaileek etxean esperimentuak egiteko material-kit bera jasoko dute.



"Zientzia Piztia" ikuskizunak Naukas Kids 2026ko egitaraua itxiko du.

Erakusketa

Intsektuak. Kontatzen duten guztia

Irailaren 19tik urriaren 4ra · Bizkaia Aretoa - EHU · Axular aretoa

Hizkuntza: elebiduna (euskara eta gaztelania).

IRAILAK 19 - URRIAK 4
BIZKAIA ARETOA-EHU



ANTOLATZAILEAK



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultural
Científica

Museo
de Ciencias
Universidad
de Navarra

euskampus

LAGUNTZAILEAK



“Intsektuak. Kontatzen duten guztia” erakusketa irailaren 19an iritsiko da Bilbora, intsektuen aparteko aniztasuna herritarrei hurbiltzeko. Animalia-talde horrek ezagutzen diren espezie guztien % 60 eta % 70 artean biltzen ditu. Erakusketa honek, intsektuak zer diren, non bizi diren, nolako anatomia duten eta ingurunearekin zein pertsonekin nola erlazionatzen diren ezagutzeko gonbidapena luzatzen du. EHUKo Kultura Zientifikoko Katedrak eta Nafarroako Unibertsitatearen Zientziak Museoak antolatu dute jarduera hau.

Erakusketaren helburua intsektuekiko jakin-mina piztea bada ere, harago doa: haien biologia, portaera eta ekologia aztertzeaz gain, elikadura-katean eta ekosistemen orekan egiten duten ezinbesteko ekarpena ere erakusten du. Era berean, erakusketa ikuspegi inklusibo eta irisgarri batetik diseinatu da, eta hainbat baliabide eskaintzen ditu intsektuen mundu liluragarria ahalik eta pertsona gehienengana hurbiltzeko.

Bisitariak erleen, kakalardoan, tximeletan, eulien, inurrien edo burrunzien forma eta kolore harrigarriak ezagutzeko aukera izango dute; baita uretan, airean, basoetan edo labore-lurretan bizitzeko garatu dituzten egokitzapen konplexuak ere. Erakusketak intsektuekiko miresmena pizteaz gain, haien babesa, habitatak mantentzeak eta biodibertsitatea zaintzeak duen garrantzia kontzientziatu nahi du.

Espazioa irailaren 19tik urriaren 4ra egongo da ikusgai Bilbon, Bizkaia Aretoa-EHUKo Axular erakusgelan eta sarrera doakoa izango da. Erakusketaren ordutegia honakoa izango da: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara, larunbateetan 10:00etatik 14:00etara

eta 16:00etatik 20:00etara, eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara. Azken egunean, alegia, urriaren 4an, Sergi Romeu entomologoak tailer bat eskainiko du erakusketa borobildu eta ekimena ixteko.

Erakusketa inklusibo eta irisgarria

Erakusketa publiko guztiari zuzenduta dago, baina bereziki kontuan hartu dira ikastetxeak eta familiak. Ibilbidea modu koherentean antolatuta dago bisitaria gidatzeko. Gainera, informazio-panelak eta grafikoak, proiektzioak, terrarioak eta esperientzia aberasten duten beste hainbat elementu interaktibo uztartzen ditu.

Era berean, erakusketak **irisgarritasun-baliabide ugari eskaintzen ditu**, besteak beste, irakurketa errazeko testuak, kontraste, kolore eta antolamendu irizpide egokituak dituzten irudiak; azpigituludun ikus-entzunezkoak, braillezko informazio-liburuxkak, ukitzeko moduko 3D elementuak eta gurpildun-aulkiaren altuetara egokitutako beira-arasak.



Erakusketa intsektuak ukitzeko tailer batekin amaituko da. © Nafarroako Unibertsitatearen Zientziak Museoa.

BZP Tailerrak

Irailak 24/26 eta urriak 4 · EDE Fundazioa eta Bizkaia Aretoa-EHU
Hizkuntza: tailer eta ikuskizun bakoitzean adierazi da.

IRAILAK 24, 26 eta URRIAK 4

BZP BILBO ZIENTZIA PLAZA

TAILERRAK

IRAILAK 24	IRAILAK 26	URRIAK 4
Y TÚ, ¿QUÉ SABES DE LA CIENCIA? 18:00 · EDE FUNDAZIOKO PATIOA	ANIMALIEN AZTARNAK - NORTZUK BIZI DIRA GURE INGURUKO BASOETAN? 10:00/11:15/12:30 · BIZKAIA ARETOA-EHU	BREAKOUT GEOLOGIKOA LEIZE ETA ARREZIFEEN ARTEAN 10:00/11:30/13:00 · BIZKAIA ARETOA-EHU
	NOLA IKUSTEN DUTE INTSEKTUEK? OMATIDIOEN MUNDO SINESTEZINA 10:30/11:30/12:30 · BIZKAIA ARETOA-EHU	IRAGANAREN ETA ORAINAREN DETEKTIBEAK 10:15/11:45/13:00 · BIZKAIA ARETOA-EHU
	UNIVERSO ACCESIBLE 17:00/18:30/20:00 · BIZKAIA ARETOA-EHU	INTSEKTUAK GERTUTIK EZAGUTU 10:00/11:15/12:30 · BIZKAIA ARETOA-EHU

ANTOLATZAILEAK
EHU
Kultura Zientziako Katedra
Cátedra Cultura Científica

LAGUNTZAILEAK
euskampus
Bilbao UGALA AYUNTAMIENTO
EUSKO JAKINTZAREN GOBERNU VASCO
JAKINTZA-PLAZA

Aurten, Bilbo Zientzia Plazak haurrentzako programazioa zabalduko du **BZP Tailerrak** ekimen berriarekin. Naukas Kids ekitaldiari gehitzen zaizkio BZP Tailerrak, hurrei eta familiei zientzia hurbiltzeko ikuskizun, tailer eta zientzia-lehiaketen bidez. Programazioak jarduerak biltzen ditu, haurrentzako eta familientzako proposamenekin eta inklusioa eta irisgarritasuna kontuan hartuta diseinatutako esperientziekin.

Jarduerak irailaren 24an (osteguna), irailaren 26an (larunbata) eta urriaren 4an (igandea) egingo dira, EDE Fundazioko Guruzu Plazan eta Bizkaia Aretoa-EHUn. Ekitaldiak doakoak izango dira.

Irailaren 24an, ostegunean, hasiko da BZP Tailerren programazioa “Eta zuk, zer dakizu zientziari buruz?” lehiaketa-ikuskizunarekin. Telebista-plato batean girotutako antzerki-proposamen dibertigarria da, *Pasapalabra* eta *Saber y ganar* saio ezagunetan inspiratua dagoena. Jarduera 18:00etan hasiko da EDE Fundazioaren Guruzu Plaza gunean eta sarrera libre izango da edukiera bete arte.

Plaza mugatuak dituzten jarduerak

Bestalde, **irailaren 26an, larunbatean**, tailer eta ikuskizunetz betetako jardunaldia hartuko du Bizkaia Aretoa-EHUK. Goizean, basoan animaliek uzten dituzten arrastoak interpretatzen ikasiko dute, edo artropodoek haien begi konposatuei esker mundua nola ikusten duten ezagutuko dute parte-hartzaileek.

Arratsaldean, **“Universo accesible” (Unibertso eskuragarria) ikuskizunak** publikoari **esperientzia multisentsorial, inklusibo eta irisgarria** eskainiko dio, artearen, zientziaren eta diseinu unibertsalaren printzipioen bidez unibertsoa esploratzeko. Proposamena publiko anitzak kontuan hartuta sortu da, baina arreta berezia eskaintzen die ikusmen edo entzumen-desgaitasuna eta autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) duten pertsonen. Gainera, baliabide irisgarriekin hornituta dago: azpigituluekin, zarata ezabatzeko entzungailuekin, baita ukitu daitezkeen elementuekin ere, ahalik eta pertsona gehienek esperientziaz goza dezaten.

BZP 2026ko **urriaren 4an, igandean**, amaituko da Bizkaia Aretoa-EHUn egingo den BZP Tailerren azken saioarekin. Jaialdiaren bederatzigarren edizioaren amaiera-jardunaldiak ginkana geologiko bat, benetako mediku-forentseen larruan jartzeko tailer bat eta intsektuak eta beste hainbat artropodo gertutik ezagutzeko jardura bat eskainiko ditu. Azken jardura horretan, parte-hartzaileek animaliak gertutik ezagutu eta ukitu ahal izango dituzte. Horrela, esperientzia multisentsoriala eskainiko da, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat ere aproposa.

BZP Tailerrak 2026ko egitaraua

Jardura guztiak, irailaren 24ko lehiaketa-ikuskitzuna salbu, edukiera mugatukoak dira, eta aldeztu aurretik izena eman beharko da bzp.eus webgunean.

IRAILAK 24, OSTEGUNA

Ikuskizun-lehiaketa | Y tú, ¿qué sabes de la ciencia? (Eta zuk, zer dakizu zientziari buruz?)

Antzerki-proposamen berritzaile honek telebistako saiorik ezagunen bihotzera eramaten gaitu, eta agertokia plato zirraragarri bihurtzen du. Bertan, aurkezle-errealizadore-sonidista, polifazetiko eta sailkaezin baten eskutik, ikusleak dira benetako protagonistak. Pasapalabra edo Saber y ganar bezalako lehiaketa ikonikoetan oinarrituta, zuzeneko ikuskizun honek mugarik gabeko dibertimendua eta ezagutza eskaintzen ditu.

- Lekua: EDE Fundazioa. Guruzu Plaza gunea.
- Orduetgia: 18:00-19:00.
- Hizkuntza: gaztelania.
- Adina: 8 urtetik aurrera, familientzako aproposa.
- Sarrera: librea, aforoa bete arte. Jende asko pilatuz gero, lehentasuna emango zaie haurrei eta ume bakoitzeko edo ume talde bakoitzeko pertsona heldu bakarra sartuko da.

IRAILAK 26, LARUNBATA

Tailerrak (goizez) eta **“Universo accesible” (Unibertso eskuragarria) ikuskizuna** (arratsaldezt)

Tailerra | Animalien aztarnak. Nortzuk bizi dira gure inguruko basoetan?

Mendian gaudela oinatz bat nola aztertuko den ikasiko dugu. Igeltsu molde bat egingo dugu, basotik egun horretan pasa diren animaliak identifikatu ahal izateko.

- Lekua: Bizkaia Aretoa – EHU. Laboa aretoa.
- Ordutegia: 10:00 | 11:15 | 12:30 (hiru txanda).
- Hizkuntza: elebiduna (euskara eta gaztelania).
- Adina: 8 urtetik aurrera.
- Aforoa: 16 ume pase bakoitzean.
- Sarrera: aldezturik izena eman behar da BZP webgunean.

Tailerra | Nola ikusten dute intsektuek? Omatidioen mundu sinestezina

Jabetu intsektuen sekreturik ezkutuenaz: begi konposatuak! Tailer honetan, gizaki gisa ikusteari utzi eta artropodo bihurtuko gara, gure ikusmen eredu propioa eraikiko dugu eta ulertuko dugu nola atzematen duten mugimendua zehaztasun paregabeaz. Zatoz eta ikusi mundua beste begirada batekin!

- Lekua: Bizkaia Aretoa – EHU. Etxepare aretoa.
- Ordutegia: 10:30 | 11:30 | 12:30 (hiru txanda).
- Hizkuntza: elebiduna (euskara eta gaztelania).
- Adina: 6-12 urte bitartean.
- Aforoa: 20 ume pase bakoitzean.
- Sarrera: aldezturik izena eman behar da BZP webgunean.

Ikuskizuna | Universo accesible (Unibertso eskuragarria)

Unibertsoak inguratzen gaitu. Han bizi gara. Unibertsoa gara. “Universo accesible” (Unibertso eskuragarria) ikuskizun multisentsorial bat da, gizaki guztiok kosmosa artetik, zientziatik eta diseinu unibertsalaren printzipioetatik esploratu ahal izateko sortua dagoena. Zeren usaina du ilargiak? Entzun al daiteke nebulosarik? Inoiz ukitu al duzu milaka milioi urte dituen meteoritorik?

- Lekua: Bizkaia Aretoa – EHU. Baroja eta Arriaga aretoetan.
- Ordutegia: 17:00 | 18:30 | 20:00 (hiru txanda).
- Hizkuntza: gaztelaniaz.
- Adina: 5 urte gorakoak. Ikusmen- edo entzumen-desgaitasuna edo autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) duten pertsonentzat aproposa.
- Aforoa: 40 pertsona pase bakoitzeko.
- Sarrera: aldezturik izena eman behar da BZP webgunean.
- Irisgarritasuna: azpigituluak, ukitu daitezkeen elementuak, zarata ezabatzeko entzungailuak eta atsedeen sentsorialerako gunea, besteak beste. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu Universo accesible egitasmoaren webgunea.

URRIAK 4, IGANDEA

Tailerra | Breakout geologikoa. Leize eta arrezifeen artean

Salba dezagun Bilboko historia geologikoa! Bouteille d'Acide negazionista gaiztoak Lurrak 5.000 urte baino gehiago dituela agerian uzten duten Bilboko harri apaingarriak suntsitu nahi ditu. Lagundu egin behar gaituzu Bizkaia Aretoa-EHUn inguruan utzi dituen arrastoak bilatzen. Garaiz iritsiko al gara?

- Lekua: Bizkaia Aretoa – EHU. Elhuyar aretoa.
- Ordutegia eta hizkuntzak: 10:00 (euskaraz) | 11:30 (gaztelaniaz) | 13:00 (elebiduna).
- Adina: 8 urtetik aurrera.
- Aforoa: 20 ume pase bakoitzeko.
- Sarrera: aldeztu aurretik izena eman behar da BZP webgunean: bzp.eus.

Tailerra | Iraganaren eta orainaren detektibeak

Ezagutu nola egiten duten lan benetako mediku-forentseak! Tailer dibertigarri eta misterioz honetan hezurdura bat muntatuko dugu, DNA erauziko dugu eta auzitegiko detektibe izatera jolastuko gara, krimen-sailetan bezala orbanak identifikatuz.

- Lekua: Bizkaia Aretoa – EHU. Laboa aretoan.
- Ordutegia: 10:15 | 11:45 | 13:00 (hiru txanda).
- Hizkuntza: elebiduna (euskara eta gaztelania).
- Adina: 4 urtetik aurrera.
- Aforoa: 20 ume pase bakoitzeko.
- Sarrera: aldeztu aurretik izena eman behar da BZP webgunean: bzp.eus.

Tailerra | Intsektuak gertutik ezagutu

Etorri zaitez artropodoak ezagutzera Sergi Romeuk, Fasmids hezkuntza-proiektuko ornogabeen irakasleak, egingo duen tailerrera. Tailer interaktibo hauetan, besteak beste, armiarmak, tximeletak, makil-intsektuak, labezomorroak eta inurriak ikusi eta ukitu ahal izango dituzu.

- Lekua: Bizkaia Aretoa – EHU. Chillida aretoa.
- Ordutegia: 10:00 | 11:15 | 12:30 (hiru txanda).
- Hizkuntza: gaztelaniaz.
- Adina: 3 urtetik aurrera. Familientzat eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat proposa.
- Aforoa: 30 pertsona pase bakoitzeko.
- Sarrera: aldeztu aurretik izena eman behar da BZP webgunean: bzp.eus.
- Irisgarritasuna: tailerrean zehar animalia batzuk ukitu ahal izango dira.

Bidebarrieta Zientifikoa

Hitzaldi-solasaldia | Intsektuak: gure auzokide txikitxoak

Irailaren 30ean · 19:00 · Bidebarrietako Liburutegia

Hizkuntza: gaztelania.



Entomologia intsektuak aztertzen dituen zientzia da. Animalia txikiak dira, eta planetako ia txoko guztietan bizi diren arren, askotan oharkabean pasatzen dira. Izan ere, beste artropodo batzuekin batera, hala nola armiarmekin eta akainekin, Lurreko izaki bizidunen talde ugarienetako eta askotarikoenetako bat osatzen dute. Aranzadi Zientzia Elkartearen artikulu baten arabera, hiru animalia espezieetatik bi intsektuak dira, eta kilometro karratu bakoitzean 10.000 milioi ale inguru daudela kalkulatzen da.

Tximiletak, euliak, kakalardoak, sorgin-orratzak, armiarmak edo akainak. Batzuek, jakin-mina pizten dute, eta beste batzuek, ordea, arbuioa eragiten dute. Hala ere, guzti-guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, funtsezko zeregin bat betetzen dute gure ekosistemen orekan.

Mundu liluragarri hori publikoarengana hurbiltzeko asmoz, **Beatriz Díaz Martín** biologoak, Aranzadi Zientzia Elkartearen Entomologia saileko ikertzaileak, "Insectos: nuestros diminutos vecinos" (Intsektuak: gure auzokide txikitxoak) hitzaldi-solasaldia eskainiko du. Jarduera irailaren 30ean izango da, asteazkenean, 19:00etan, Bilboko Bidebarrietako Liburutegian.

Hitzaldian zehar, Díaz Martínek intsektuak eta beste artropodo batzuk nolakoak diren eta naturan zein eginkizun betetzen duten azalduko du. Era berean, fama txarra izan arren, espezie horietako asko ekosistemen funtzionamendurako funtsezkoak zergatik diren mahaigaineratuko du. Hitzaldi hau aukera paregabea izango da animalia txiki horien aparteko aniztasuna ezagutzeko eta haien kontserbazioaren garrantzia ulertzeko.

Hitzaldi-solasaldia EHUKo Kultura Zientifikoko Katedrak eta Bilboko Udaleko Kultura sailaren mende dagoen Bidebarrietako Liburutegiak antolatzen duten Bidebarrieta Zientifikoa hitzaldi-zikloaren parte da. Sarrera doan eta librea izango da, eserlekuak bete arte. Streaming bidez ere jarraitu ahal izango da, Bidebarrieta Kulturgunearen [YouTube](#)ko kanalaren bidez.

Hizlaria

Beatriz Díaz Martín Biologian doktorea da (Euskal Herriko Unibertsitatea). Aranzadi Zientzia Elkarteko Entomologia saileko ikertzailea da, eta hamar urte baino gehiagoko esperientzia du biodibertsitatearen eta mehatxatutako espezieen kontserbazioari lotutako lan aplikatuetan. Dibulgazio zientifikoko hainbat proiektu zuzendu ditu, besteak beste, *EsCArLiManía*, *Polizinadores en Huelga* eta *BiArteko Mugi*. Gaur egun, euliei, burruntziei eta sorgin-orratzei buruzko lan-ildoan arduraduna da.



Beatriz Díaz biologoa intsektuek ekosistemen kontserbazioan duten zeregina azalduko du. © Aranzadi Zientzia Elkartea.